



# Gobernu Planaren balantzea

98 neurri

Zumaiko  
Udala



ZUMAI  
BIZITZEKO  
DA

# 98 neurri

Legealdi hasieran 98 neurri eta proiektuz osatutako plana aurkeztu genuen. Horrekin batera, [bizitzekoda.zumaia.eus](http://bizitzekoda.zumaia.eus) webgunea herritarren eskura jarri genuen, planaren jarraipena egiteko.


Legealdia bukatzeko hiru hilabeteren faltan, herritarren aurrean kontuak ematera gatoz.

Eskuartean duzun balantzea gardentasun ariketa bat da: duela hiru urte hartu genituen 98 konpromiso konkretuen betetze edo ez betetzea mahai gainean jartzen duena.

Balantze honekin ez dugu autokonplazientzia edo dominarik bilatzen. Juxtu kontrakoa.

Duela hiru urte hartutako konpromiso publiko horiei emandako erantzunak erantzun, irakaspenak atera eta etorkizunean ekimen gehiago proposatu eta egitea da helburua.


Egindakoaren balantze positiboak ez dezala etorkizunerako izan beharko genukeen anbizioa apaldu.



98 proiektutik 94 proiekturi heldu diegu.

Horietatik 59 amaituta daude, eta 13 amaitzear. Hau da, 72 proiektu egintzat jo ditzakegu. Beste 22 martxan daude, fase desberdinetan.

Proiektu bat baztertu dugu, eta beste hiru gelditu zaizkigu hasi gabe.



# Hirigintza eta lurralde antolamendua




- > 4 proiektu amaituta
- > Proiektu bat bukatzeaz
- > 4 proiektu martxan

01. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) idatzi eta onartzea.



02. Kirol portuko saneamendu lanak egitea, arazketa sarera lotzeko.



03. Artadiko saneamendu lanak egitea, arazketa sarera lotzeko.



04. Oikiako saneamendu lanak egitea, arazketa sarera lotzeko.



05. Santiago Hondartzan zerbitzuetaarako eraikina egokitzeko lanak.



06. Estazio auzoko plan integrala idaztea.



07. Erkibe eraikinarentzako erabilera egokiena erabakitzea.



08. Kofradiako eraikinarentzat erabilera egokiena zein den aztertzea.



09. Udal lokalen zerrenda eguneratzea eta herriko elkarteen beharrekin bateragarritasunak bilatu.



**Aurreikusitakoez gain,  
beste hainbat proiektu ere  
egin dira:**

> Saneamendu eta ur hornidura lanak:

- Ponpategia Ardantzabidean
- Aita Mari auzunean ur hornidura sare orokorra berritu
- Basadi auzuneko saneamendua
- Juan Belmonteko ur-hornidura berritzeko obra martxan

> Beste hainbat:

- Julio Beobide ibiltokian oinezko paseoa heskaia kendu
- Aita Mari eta Alai auzuneen arteko eremua hiritartu
- Hilerrian egokitzapen lanak
- Kofradiako estalpea konpontzea
- Behin behineko komuna Basustabidean
- San Juan Egoitza handitzeko hirigintzako tramiteak askatu

# Irisingarritasuna eta mugikortasun jasangarria



- > 4 proiektu amaituta
- > Proiektu bat bukatzeaz
- > Proiektu bat martxan

10. Estazio auzoaren eskaeren barruan, espaloiak zabaldu



11. Estazio auzoko plan integrala idatzi bitartean, tren geltokirako bidea hiritartzea.



12. Larretxorako plana idaztea (irisingarritasuna, igogailu berria, espaloiak...).



13. "Zumaia irisingarria" taldeak zehaztutako lan txikiak egiten joatea, oztoppa arkitektonikoak ezabatzeko.



- Julio Beobide kaleko tarteko espaloiak egokitu
- Mapfre aurreko espaloia txukundu
- Larretxon, hiru espaloi berri eta irisingarri egin
- Itzurunbide hasieran espaloi berria
- Alai auzunean, Victoriano arrate etorbideko loturak irisingarriagoak egin, kotak berdindu.

14. Oikiako bidegorria egin dezan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanak abiatu eta aukerak aztertzea.



15. San Jose auzoko etxebizitzetan igogailuak jartzeko azterketa egitea.



**Aurreikusitakoez gain, beste hainbat proiektu ere egin dira:**

- Zirkulazio ordenantza
- Autokarabana eta kamioien guneak aldatu eta margotu
- Herri bideak zehaztu
- Baserri bideak konpondu
- Zebrabideetan autismoa duten haurrentzako seinaleak (Gautena elkartarekin elkarlanean)
- Asfaltatze kanpaina martxan jarriko da laster

# Etxebizitza politikak



> 5 proiektu amaituta  
> 4 proiektu bukatzean

16. Etxebizitza hutsen egoeraren azterketa diagnosia egitea.

%100

17. Etxebizitza Sailarekin hitzarmena, ASAP, Bizigune edo Gaztelagun programak Zumaian zabaltzeko.

%100

18. Etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko, etxebizitza bulegoa zabaltzea, teknikari batekin.

%80

19. Etxebizitza turistikoak arautzea, egoera legezkoa izan dadin eta urte osoko alokairura bideratzen diren etxe kopurua hazteko.

%80

20. Etxabe eta lokalak etxebizitza bihurtzeko araudia eguneratzea.

%100

21. Torreagako etxebizitza babestuen promozioaren eraikuntza bideratzea.

%100

22. Puntanuetan alokairuko eta babestutako etxebizitza promozio berri bat eraikitzeke prozesua bideratzea.

%80

23. Alokairurako diru laguntza eredu berria egin eta martxan jarri, hartzaile kopurua zabaltzeko.

%100

24. Datorren legealdira begira, alokairurako parke publikoa osatzen hasteko aukerak aztertu.

%80



## Nabarmentzekoak:

> Alokairurako dirulaguntzen hartzaile kopurua nabarmen haztea lortu da

> Etxebizitza problematika modu integrean lantzen ari da

> Etxebizitza turistikoak erregulatzeko arau aldaketa amaitzen ari gara. Beste urtebeteko moratoria ezarriko da.

# Lana eta tokiko garapena



- > 3 proiektu amaituta
- > Proiektu bat bukatzeaz
- > Proiektu bat martxan

25. Coworking edo elkarlan zentroa martxan jartzea. Autoenplegurako eta ekonomia sozial eraldatzaileko formazioa eta sinbiosi aukerak martxan jarri.



26. Merkatari txikientzako laguntzak aztertu, merkatari elkartearekin batera.



27. Ostalaritzako terrazen eta komertzioetako erakustokiak ordenantza eguneratzea.



28. Lehen sektoreari bultzada emateko, azoka biziberritzeko aukerak aztertu eta martxan jartzea.



29. Lehen sektorearekin elkarlana, baserriarren proiektuak kontsumitzea bultzatzeko ekimenak aztertu (esne makinaren ezarpena, azoka ekologikoa...)



## Nabarmentzekoak:

- > Zumaian ekosistema kolaboratiboa ezartzeko lehen pausuak eman dira
- > Merkatari Elkarteari ematen zaion dirulaguntza bikoiztu da (30.000 eurotik 60.000 eurora)
- > Zumaian Bai.eus plataformaren sorrera
- > Pandemia garaian merkataritzan hauspotzeko neurriak
- > Merkataritzarako Plan Estrategikoa egin da, eta, orain, Ekintza Plana diseinatuko da
- > Xey industrialdea biziberritzeko pausoak

# Zerbitzu publikoak



- > 6 proiektu amaituta
- > Proiektu bat bukatzeaz
- > Proiektu bat martxan

30. Udal Brigada handitzea: Igeltsero ofizial bat eta peoi bat kontratatzea.

%100

31. Azpikontratatuta dauden hainbat udal zerbitzu publikatzea.

%60

32. Udaleko plantillan behar diren langile berriak sartzeta: administrari bat, bi gizarte langile eta pertsonaleko teknikaria.

%100

33. Udaltzaingoaren eraikina eraberritzea.

%100

34. Udal Brigadaren eta Udaltzainen ibilgailu flotak berritzea.

%100

35. Udal langileen egonkortzerako pausuak ematen hastea, behin behinekotasun tasa jaisteko.

%100

36. TAO zerbitzua hobetzen joatea, herritarrekin batera eta beraien ekarpenei erantzunda.

%100

37. Zumaian zuntz optikoaren sare publikoa eratzea. Zuntz optikoa auzoetara ere iristeko neurriak hartuko dira.

%80



## Nabarmentzekoak:

- > TAO sistemaren aldaketa guztiak mahai tekniko-politikoaren baitan landu dira
- > Zerbitzu publikoa hobetzeko beharrezko langile guztiak kontratatu dira



# Gizarte politikak



> 5 proiektu amaituta  
> Proiektu bat bukatzean

38. Gizarte larrialdietara zuzendutako apartamentuen kokapenerako eraikin egokia bilatzea.

%100

39. Etxebizitza sozialak sortzeko eraikinak bilatzea (Branka moduko erabilera izango dutenak).

%100

40. Nazioarteko lankidetzarako euskal fondoarekin hitzarmena sinatzea.

%100

41. Gizarte zerbitzuetan iraungita dauden kontratuak berritu eta egokitzea.

%100

42. Apustu etxeak arautzeko ordenantza egin.

%80

43. Migranteen harrera protokoloa idatzi.

%100



## Nabarmentzekoak:

- > Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eta bestelako zerbitzuen inguruko informazioa helarazteko ahalegin berezia egin da. Horrek hartzaile kopuruan eragina izan du.
- > Prebentzio Mahaian baitan, zaintza lantzeko azpi-mahaia sortu da
- > Guraso Eskolak indartu dira
- > Detekzio goiztiarrerako programa martxan jarri

# Zahartzaro duina



> 3 proiektu amaituta

44. Pobrezia arriskuan dauden pentsiodunentzat diru laguntzak jasotzeko aukera berriak sortzea.

%100

45. Nagusientzako eguneko arreta zerbitzu berri bat martxan jartzea, menpekotasun arriskuan edota menpekotasun balorazio baremoan 25-39 arteko puntuazioa duten herritarrei autonomia eusten laguntzeko.

%100

46. Bakarrik bizi direnen etxez etxeko jarraipen zerbitzua indartzea.

%100



# Herri hezitzailea



- > 5 proiektu amaituta
- > 4 proiektu martxan
- > Proiektu 1 baztertuta


47. Haurreskola berria eraikitzea, Arrangoletako behin behineko egoerarekin amaitzeko.



48. Ludoteka kanpoko aterpea egitea.

**ORAINGOZ, BAZTERTUTA**

49. Hizkuntza eskola ofizialak bere zerbitzuak Zumaiaren eremuan ahal izateko aukerak aztertzea.



50. Herri Eskolako gurasoekin batera sukalde eta jantokia berritzeko beharrezko laguntza eman eta lanak egitea.



51. Udako bi urteko haurren zaintza zerbitzua bermatzea.



52. Txiribuelta elkarteari lokala uztea.



53. Zumaia Oinherri herri hezitzaileen sarean sartzea, eta herri hezitzaile izatera bidean pausoak ematea.



54. Oikiako eskolako patio berria egitea, auzotarren eskaerak aintzat hartuta.



55. Haur parkeak berritzea.



56. Herri Eskolako Aita Mari eraikineko patioa berritzea, gune estalia eta elementu naturalak gehituz.



OHARRA: Baztertutako proiektuak aintzan hartu gabe.

**Aurreikusitakoez gain, beste hainbat proiektu ere egin dira:**

> Mariantongo parkea egiteko aurreproiektua eginda

> Haurren Kontseilua sortu da

> Eskola kirola eraldatzeko prozesua

> Zumaiena:

- Instalazioak erabiltzeko hitzarmena
- Baso Magikoa diruz lagundu

**Baztertutako proiektua:**

> **Ludotekako aterpea:**

Legealdi hasieran, udal teknikariekin gaia landu ondotik, ez zen lehentasunezkoztat jo. Itsas Kirolegiko eraikina osotasunean aztertu behar da.

# Kultura



> 3 proiektu amaituta  
> Proiektu bat bukatzeaz

57. Mojararren komentua eraberritu eta kultur gune bat jartzea, besteak beste musika, dantza eta antzerki eskola berria eta areto balioanitz jasoko dituen.



58. Aita Mari zinemaren jabetza eskuratu, eta beharrezko egokitzapenak egitea.



59. Musika eskolaren kudeaketa eraberritzea eta egokitzea.



60. Liburutegiaren ordutegia zabaltzea, zerbitzua hobetzeko.



## Nabarmentzekoak:

> Komentua eraberritzeko dirulaguntza handiak lortu dira

## Aurreikusitakoez gain, beste hainbat proiektu ere egin dira:

> Sortzaileentzat dirulaguntza berria sortu da

> Geuretik Sortuak (Udalbiltza) proiektuan parte hartu da

> Kultur programazioa indartu da, eta musika eskaintza handitu


> Erakusketa bereziak antolatu dira herriko elkarteekin: HAPO, Beobide, Zuloaga, Itzalpeko Emakumeak...

# Gazteak



- > Proiektu bat amaitzeaz
- > Proiektu bat martxan

61. Gaztetxola handitzeko aukera aztertzea.



62. Gazteen parte hartzerako eta beraien ekimenerako, sormenerako, autoenplegurako edo herrigintzarako proiektuak sustatzea



## Nabarmentzekoak:

- > Gazteguneko zerbitzua indartu da
- > Etxebizitza politiken kasuan, gazteen egoera konkretua ere aztertu da



63. Udalean euskararen erabilerarekin lotutako Bikain ziurtagiria lortzea.

%100

64. Udal barruko euskararen erabilerak gora egiteko kudeaketa plana egitea.

%100

65. Euskararen erabilera handitzea helburu duten proiektuak eta programa zehatzak aurrera eramatea.

%100

66. Euskarazko eskualdeko komunikabideei diru laguntzak handitzea.

%100



**Aurreikusitakoez gain,  
beste hainbat proiektu ere  
egin dira:**

- > Ostalarientzat eta adinekoak zaintzen lan egiten dutenentzat euskara ikastaro laburrak
- > Merkatariei .EUS domeinua doan
- > Garai bateko izenak berreskuratzeko lana: kale izendegia, etxeetan xafalak...
- > Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako (ELE) ordenantza idazten hasi da
- > Aldibereko itzulpena egiteko sistema martxan

# Kirolak




- > 2 proiektu amaituta
- > Proiektu bat bukatzeaz
- > 2 proiektu martxan

67. Kiroldagiko igerilekua handitzea, ikastaroetarako gela berriak ateratzea eta kantxaren egoera hobetzea.



68. Kiroldagiaren kudeaketa-eseleipena berritzea.



69. Itsas Kiroldagian berrikuntza lanak egitea.



70. Piragunistek neguan entrenatzeko ibaira begirako fokoak ipintzea.



71. Kirol teknikaria kontratatzea.



**Aurreikusitakoez gain, beste hainbat proiektu ere egin dira:**

- > Futbol zelaian bulego berriak
- > Oikiako frontoian konponketak
- > Futbol zelairako proposamen berria lantzen

# Turismoa



> 2 proiektu amaituta  
> 2 proiektu martxan

72. Moilaberriko estazio zaharra eraberritu eta erabilera berrietarako martxan jartzea (Turismo bulegoa, Zumaiaiko Industria Ondarearen museoa...).



73. Turismo mahaia martxan jarri eta funtzionamendu erregular bat finkatzea, eraginkorra izan dadin.



74. Algorri interpretazio zentroaren materiala berritzeko Aldundiarekin adostasuna lortu eta esleipena egitea.



75. Komentuko aterpetxea egokituko da, kudeaketa modu egokiena erabaki eta martxan jartzea.



## Nabarmentzekoak:

> Moilaberriko estazioan, Turismo Bulegoa eta erakusketa finkoa egiteko dirulaguntza lortu da, eraikina eraberritzeko diru-laguntzarekin batera (Next Generation)

> Algorri Interpretazio Zentroaren eskaintza museistikoa eraberritzeko diru-laguntza lortu da (Next Generation)

> Algorri Interpretazio Zentroaren eraikina birgaitzeko diru-laguntza eskatuko da (Next Generation)



# Ingurumena



- > 4 proiektu amaituta
- > Proiektu bat bukatzeaz
- > 3 proiektu martxan
- > 2 proiektu hasi gabe

76. Puntanuetako hezegunea berreskuratzea.

**HASI GABE** %0

77. Puntanuetako kutsatutako lurrak garbitzeko beharrezko izapideak bultzatzea.

%100

78. Urola ibaian pantalan berriak jartzea.

%70

79. Gune berdeen zuzendaritza plana eta ordenantza idaztea.

%50

80. Biotopoaren kudeaketa planeko neurriak martxan jartzea, Aldundiarekin elkarlanean.

%100

81. Paroleko pistina naturala garatzeko Kosta Agintaritzarekin harremanetan jarri eta proiektua idaztea.

%30

82. Haizeola posibleak bilatu eta errekonstruzio indusketak martxan jartzea.

**HASI GABE** %0

83. Energia diagnostikoa egin eta bertan ezartzen diren pausak ematea, optimizazio energetikoarekin eta energia berriztagarriekin lotuta.

%100

84. Urolako Itsasadarreko Plan Berezian jasotako ekintzak pixkanaka aurrera eramaten hasi.

%10

85. Herriko argiteria LEDetara aldatzeko lanekin jarraitzea

%100



OHARRA: Hasi gabeko proiektua kontutan hartuta.

## Nabarmentzekoak:

- > Egutera energia kooperatibaren sorrera sustatu du Udalak
- > Partaidetzako aurrekontuen baitan udal eraikinen teilatuetan eguzki plakak jartzea aukeratu zuten herritarrek

# Feminismoa



> 9 proiektu amaituta  
> 2 proiektu martxan  
> Proiektu bat egin gabe

86. Udal teknikariei eta zinegotziei formakuntza feminista saiok eskaintzea.



87. Indarkeria matxistaren inguruan Udaltzainei protokolo eta formakuntza feministak azaltzeko saiok eskaintzea.




88. Sexu jazarpenari aurre egiteko udal protokoloa landu.



89. Udalean lana eta bizitza pertsonala uztartzeko dauden aukerak aztertu (tefelana eta bestelako kontziliazio aukerak) eta martxan jartzea.



90. Berdintasunaren udal ordenantza idaztea.



91. Emakumeon\* Etxea martxan jartzea, horretarako lokal aproposena eskaini eta egokituz.




92. Liburutegian txoko feminista sortzea.



93. Emakumeek Zumaiaiko historian izan duten papera ikusarazteko ikerketa beka lerroa ireki.



94. Hezkidetzeta programa integrala osatu herriko eragileekin.



95. Genero identitatea eta sexu aniztasunari buruzko lan-lerroa martxan jartzea



96. Malen Etxearekin elkarlanean, zaintza lanaren inguruko kontzientziario kanpainak eta ekimenak martxan jartzea.



97. Gizonek maskulinitatea lantzeko espazioak sustatzea.



OHARRA: Hasi gabeko proiektua kontutan hartuta.

## Nabarmentzekoak:

> Berdintasunaren udal ordenantza ez da idatzi, IV. Berdintasun Plana osatzeko garaia zelako. Hori egin da.

# Partaidetza

> **Proiektu bat martxan**

98. Parte hartze ordenantza idatzi,  
herritarren partaidetzarako eredia  
zehazteko



## Nabarmenezkoak:

- > Udalaren partaidetza webgunea martxan jarri
- > Partaidetzazko aurrekontuak garatu
- > Zumaiako partaidetza eredia diseinatzeko prozesua egin da, eta udalean modu integralean martxan jartzeko neurriak hartu

Informazio gehiago:  
**[bizitzekoda.zumaia.eus](http://bizitzekoda.zumaia.eus)**

